



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2009-11-07

VII.URTEA 1.821.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Migel Arretxe, Ana Arretxe eta Idoia Otegik (TEE), Maria Jesus Aranburuk (Foru Aldundiko Kultura diputatua), Jokin Bildarratzek (Tolosako alkatea) eta Mikel Irizarrek (Kutxa), aurkeztu zuten atzo Titirijai jaialdia. REBEKA CALVO

## QUEBEC ETA TO.PIC TITIRIJAI JAIALDIKO PROTAGONISTAK

**TOLOSA** Azaroaren 28tik abenduaren 6ra izango da jaialdia; Quebec-  
eskainiko diote leihoa, eta hilaren 27an inauguratuko dute To.Pic 3

## Ierabizkar Behekoa errota berritua bihar ikusgai

**AMEZKETA** Kultur Astearen baitan bihar  
egingo dute ekitaldia, 11:00etan hasita 6

## Aste osoko festaren itxaroan daude amasarrak

**AMASA** Datorren asteartetik igandera  
bitarte ospatuko dituzte San Martin jaiak 5

**MAIDER BARTOLOME**  
ANTZERKI IRAKASLEA

«Umeekin  
%500ean  
landu behar da  
irudimena»

**ADUNA** Haurrentzat antzerki  
tailerrarekin hasi dira  
Asvinenean aste honetan 2



N.L



Laser Promozioa Azaroaren 9-tik 23-ra  
Hanka osoak izterondoak  
barne, 5 sesioko bonoa

# 1.250€

## SHUYANA

ESTETIKA: Eskolapiotako  
Lorategiak 3.1A. T. 943 675 489  
KOSMETIKA:  
Koroa 1. T. 943 671 468

**E Elkarrizketa****MAIDER BARTOLOME** › Antzerki tailerreko irakaslea

**Kultura** » Umeekin aritzea «ikaragarri gustuko» du; eta horixe egingo du ikasturte honetan haurrentzat Asvinenean antolatutako antzerki ikastaroan.

**NOELIA LATABURU**

Aste honetan bertan ekin diote Asvinenean haurrentzako antzerki tailerrari. 9-12 urte bitarteko gazteek hartzen dute parte bertan eta Maider Bartolome ordiziarrak gidatzen ditu eskolak. Ikasturte amaieran antzezlan aurkeztuko dute; baina ekaina urrutiko dago eta prozesu horretan alor ugari landu behar dituzte umeekin Bartolomek.

**Zer landuko duzu antzerki tailerrean?**

Antzerkia egitea erakusteaz gain erakutsi nahi diet bere gorputza kontrolatzen, amasa ondo hartzeko teknika erabiltzen ahotsa gaizki ez edukitzeko, nerbioak kontrolatzen, erlaxapen ariketa asko... Hauek denak antzerkirako gain eguneroko bizitzarako ere oso ondo etorriko zaizkie. Azken batean beraiek beraien gorputza ezagutzeko eta nola erabili jakiteko.

**Zenbat umek eman dute izena?**

Oraingoz bost edo sei izango dira. Talde txikia izango da; dena den, taldeak ez dira oso handiak izaten, 10-14 gehienez. Bakoitzarekin lana egiteko ere denbora behar delako. Talde handia bada lan hau ez da ondo ateratzen, batekin zauden bitartean besteek itxaron egin behar dutelako. Haurrek dinamismoa behar dute. Errazagoa da talde txikiagoekin.

**Zer aurreikuspenekin joan dira haurrak ikastarotara?**

Nikuste dut beraiek buruan datoztela aktore izan nahi dutela, antzeztu egin nahi dutela. Telebista ikusten dute eta horrek eragin handia du, izan ere adin horretan apenas ez dute antzerkirik ikusi. Nahiz eta biek ez duten zerikusirik.

**Era guztietako haurrak ezagutuko dituzte bertan...**

Denetarik daude. Lotsa gehiegi ez dutenak baina baita ere lotsatiak direnak edota guraso lotsatiak dituztenak. Guraso hauek askotan haurrak eramaten dituzte euren umeek lotsa hori ez izateko. Azkenenean denek osatzen dute talde bakarra eta elkarjoko bat dela esaten diet beti. Konfiantza lortzeko lana egiten dut.

**Diferentzia handia egoten al da umeen beraien artean?**

Diferentzia handiena herri txikia edo handia den, hor topatzen dut. Taldeen arteko kideen erlaziorengatik izaten da hau. Herri txikiatan asko ezagutzen dira, eskolara ere elkarrekin daude, batera daude. Askotan familia artekoak



N. LATABURU

## «Irudimena %500ean landu behar da umeekin, gauzak erraz azalduz»

dira. Herri handietan askotan ez dira eskola berdinekoak eta ez dute elkar ezagutzen. Zentzu honetan herri txikietan ez zara zerotik abiatzen, konfiantza hartzeko unea nabaritzen da.

**Zentzu honetan errazagoa da herri txikiak haurrekin aritzea?**

Lanean hasteko garaian bai abiapuntua desberdina delako. Baina herri handietakoek ikasi egiten dute ezezagunekin konfiantza hartzen eta herri txikiakoez.

**Zer ekarpen egiten die antzerkiak haurrei?**

Irudimena lantzeaz gain, espresatzen ikasten dute era lasaitu batean, besteak entzuten eta entzunak izaten ikasten dute, ahotsa altxatzen. Halaber, norberaren autoestima igo egiten zaie, gauzak egiteko gai direla ikusten dute, segurtasun bat irabazten dute.

**Zer helburu dituzte zuek ikastaro honetan?**

Ikasturte amaieran espero dut behintzat oinarri batzuk hartzea: amasa nola hartu, jendeaurrean egoteko presentzia eta antzerki bat aurkezteko gai izatea. Etabatez ere ondo pasatzea. Beraiei galdeztzen diet: «Zer ikasi duzue?» eta batez ere «Nola pasa duzue?». Zerbaitekin geratu direla esaten badituzte ni gustura geratuko naiz. Gehiago ezin diet eskatu.

**Bertan ikasten dutenari jarraipena emateko aukerarik ba al dute?**

Gure helburua hurrengo urtean talde hau jarraitzea eta bigarren ikasturtean sortzea izango litzateke. Eta talde berri batekin beste lehen ikasturte bat osatzea.

**Zer teknika erabiltzen dituzte haurrekin?**

Denetik. Asko nahasten dituzte ezin dituztu helduekin erabiltzen dituzten teknika berdinak erabili. Adibidez, ez dakite zer den diafragma. Beraiekin batez ere irudimenaren teknika erabiltzen dute. Adibide asko jartzen dizkiet. Adibidez, diafragma esplikatzen esaten diet «pentsatu zuen sabela globo bat dela eta puztu egin behar duzuela...». Umeekin irudimena %500ean landu behar da, gauzak era errazean esanda. Zuri ikusita ere asko ikasten dute, imitaziozko teknikarekin, hain zuzen.

**Musikarekin ere lotura berezia duzu. Baliabide egokia izan daiteke umeentzat, ezta?**

Bai, lan asko egiten ditugu musikarekin. Musikak asko laguntzen du soltatzeko, gure gorputzari agintzen uzten diogu buruaz ahaztuta. Gorputz adierazpeneko ariketan oinarria musika izaten da, baita erlaxazio ariketan ere. Erritmoekin ere lana egiten dut askotan, koordinazioa lantzeko. Musika ja-

rri beharrean beraien artean erritmoak lortzea, inproeritmo deritzona. Inguruan dauzkagun gailuekin hitz egin eta inorek zerbait josten duten.

**Askotan beraiek ere instrumenturen bat joko dute...**

Bai, eskoletarako ez dute erabiltzen instrumentuak baina beraiekin hitz egin eta inorek zerbait josten badu erabiltzen dute gero antzezlan montatzen dugunean aurkezpen moduko egiteko. Hau taldearen arabera izaten da.

**Eta nola garatzen da zure saio bat?**

Hasieran antzerkian sartzeko bakoitzari pertsonaia bat ematen diet. Askotan beraiek aukeratzeko dituzte: aita, ama, lapurra... Eta ni narratzaile modura hasten naiz. Beraiek antzeztokian ni esaten ari naizena antzeztu behar dute, imihintzioka, ahotsa erabili gabe. Helburua da gorputza eta atentzioa erabiltzea. Inprobisatu egiten dut nik. Hau da oinarria.

**Eta hurrengo urratsa?**

Haurren adinaren arabera da hau. Adibidez, badituzte hainbat talde 4 urte inguruko umeekin eta hauekin ipuinak antzeztu ditugu. Bi esaldi-edo esan behar izaten dituzte. Helduagoak badira eta irakurtzen badakite gauza landuago-

ak egin ditzaket. Adunakoekin, adibidez, testuak landu ditzak.

**Berezko ekoizpenak egiten saiatzen al zara?**

Helduagoak direnekin bai. Talde batekin, esaterako, gu ari gara istorioa asmatzen. Gai ezberdinak planteatu, guztietan bat aukeratu eta hortik aurrera jorratu. Horrela beraiek ere ikusten dute antzeztan baten prozesua.

**Haurrek dinamismoa behar dute, horregatik talde txikiagoekin errazagoa da**

**Norberaren autoestima igo egiten zaie, gauzak aurrera eramateko gai direla ikusten dute**

**Musika ere asko erabiltzen dute, gorputzari agintzen uzten diote honi esker, buruaz ahaztuta**

**Eta beraiek ere parte sentitzen dira...**

Hori da, beharrez ere jabetzen dira. Hau bigarren mailakoekin egiten hasi naiz. Pauso bat aurrera emateko modu bat.

**Hezuntza lan handia egiten duzu antzerkiarekin, beraz.**

Nire helburua hala da, Madrildik hona horretara etorri nintzen. Nirekin ikasten dutena baliagarri izan dezaten. Eta antzerkiak eskaintzen dituen baliabideak ikasi eta bizitzan praktikan jartzea. Aktoreak gure gorputza ezagutzen eta entzuten ikasi behar dugu, baita nerbioak eta kontrolatzen. Hau bizitzarako oso ondo etortzen da. Gure garaian hau ez ziguten erakusten, egun gero eta garrantzia gehiago ematen diote ikastetxeetan.

**Baina hezitzaileak prestatzen al dituzte horretarako?**

Ez dut ulertzen nola ez dagoen ezer antzerkian ikasten diren gauzak ere ikasteko: gorputz mugimendua nola landu, ahotsa, jarraia... Hauek umeentzat funtsezkoak dira. Ez dut ulertzen gaur egun nola ez dagoen irakaskai hau.

**Eta zer arazo topatzen dituzte?**

Oraingoz ez dut mugarik topatu. Zailena izaten dena lokalak lortzea baina herri guztietan dugu lokal bat. Askotan psikomotritizate gela uzten digute. Alderantziz esango nuke, gutxinak joan direla irakitzeko antzerkirako ate guztiak, batez ere herri txikietan.

**Antzerkia sustatzen ari dira, horretaz.**

Bai, orain arte agian ez da horrela aukerarik izan, gurasoak euren artean antolatuta beharra daude zerbait egin nahi badute eta zailagoa da, baina ikusi dutenean aukerak hori eskaini zaiela baliabide guztiak jarri dituzte hauek aurrera ateratzeko. Horretan ere zorte ona izan dute. Lehenetarikoa izan naiz.

# Quebectar txotxongiloen leihoa irekiko dute aurtengo jaialdian

**Titirijai 09** » 20 taldek 67 emanaldi eskainiko dituzte hilaren 28tik abenduaren 6ra Tolosan; Quebec-ekin batera To.Pic zentroa izango da protagonista Titirijai 09n.



Ana Arretxe, Mikel Irizar, Maria Jesus Aranburu, Jokin Bildarratz eta Migel Arretxe atzoko aurkezpenean. R. CALVO

REBEKA CALVO

Aurtengo Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiak, Titirijai 09k, urteroko kalitate izango duela argitu dute arduradunek, baina «krisia dela eta», ikuskizun gutxiago egongo dira, 21 zehazki, iaz baino bost gutxiago.

Zer ikusia egongo da hala ere, izan ere mundu osoko 20 talde etorriko dira, horietako bost Quebec-ekoak izango direlarik, aurtengo gonbidatu duten herrialdea dena, hain zuzen. Guztira, Tolosan bertan, 67 emanaldi eskainiko dituzte hilaren 28tik abenduaren 6ra bitarte. Quebec-eko lanekin batera, dena den, Israelgo, Italiako, Mexikoko eta Portugalgo konpainiak ere gerturatuko dira jaialdian, besteren artean. Aurtengoan lehen aldiz, gainera, Thailandiako eta Hego Koreako konpainiak ere izango dira.

Euskal Herritik ere bi ikuskizun izango dira, TTR Teatroren *Urrun Erreimua* eta Tenderreteren *Errortariaren Amodioa eta Desamodioak edo Sorginkeriaren Lanbide Ona (Amores y Desamores de la Molinera o el Buen Oficio del Maleficio)*. Katalunian bizi den Anita Maravillas Teatro euskaldunaren *Leonorren ametsak (Los sueños de Leonor)* ere ikusi ahal izango da.

Era berean, Pais Valenciako zortzi konpainiek bat eginda sortutako ikuskizuna, *Guztia kaxan (Todo en Caja)*, nabarmendu behar da. Bertan umeen eskubideen inguruan hitz egiten dute.

Aurtengoa 27. edizioa da, «atzetik lan sakona egin dela adierazten» duena Maria Jesus Aranburu-

ruk, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatuak, atzo Donostiako Koldo Mitxelena egindako aurkezpenean argitu zuenez.

Titirijai 09k betiko maila izango du, «oso altua», alegia, eta berrikuntza nabari bat izango du, izan ere, jaialdia hasi baino egun bat lehenago, hilaren 27an, To.Pic Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa inauguratuko dute. Eraikin berriak izango duen 250 pertsonentzako auditorioari esker helduentzako emanaldiak bertan eskainiko dituzte, hau da, 17, eta inaugurazio egunean bertan taile-

rrak, artisauen feria, txotxongiloen maratoia eta abar izango dira.

## Erakusleihoa

Tolosako txotxongilo jaialdiak mundu osoko konpainiak biltzen ditu eta urtero herrialde bati bertaratzeko eta euren lana erakusteko aukera ere eskaintzen dio... *ra leihoa* izeneko atalari esker. Titirijai 09ko leihoa Quebec-irekiko diote eta 5 konpainia gerturatuko dira. Ana Arretxek, Tolosako Ekinbide Etxeko lehenkaria, argitu zuenez Quebec-ek sekulako ilusioarekin jaso zuen Tolosara

etortzeko gonbita. «Euskaldunontzat, Quebec-ek gure historian leku oso berezia betetzen du, bere urek gure baleazaleentzat arrantzaleku bezala balio izan baitzuten. Badirudi datuek adierazten dutela dagoeneako 1352. urtean, Kolonek Amerika aurkitu aurretik, euskal baleazaleek itsaso haiean arrantzatzen zutela», gaineratu zuen.

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak bere aldetik, Quebec-eko lanak eta txotxongiloak ikusteko aukerarekin batera bertako eta hemengo gastronomiaren arteko

trukaketa emango dela aurreratu zuen.

Ikusi ahal izango diren ikuskizunei dagokionez, Migel Arretxe jaialdiko arduradunak jaialdia irekiko duena nabarmendu zuen lehenik eta behin. Haurrei zuzendutako lana da, Leidor antzokian ikusi ahal izango da, eta Quebec eta Kanadaren arteko koproduzioa da. Konpainiak Sans Fil izena du eta lana berriz *Munduaren amaierako koroa (La Corona del fin del mundo)* da. Istoria Eskoziako kondaira batean oinarritzen da eta duen berezitasuna da txotxongiloak erraldoiak direla.

Bestelako kondairarik ere egongo da Quebec-en eta Kanadaren eskutik, istorio inuita hain zuzen, Motus taldearen *Innusia, foka emakumea (Innusia, la mujer foca)* izeneko. Hau ere umeei zuzendutako lana da.

2 eta 5 urte bitarteko haurrek ere izango dute euren tartea Theatre des Petites Aimes taldearen *Pekka* ikuskizunari esker. Eskularruekin egindako lana da eta dordoka txiki baten gora beheak ditu ardatz. Hau ere Quebec eta Kanadaren arteko koproduzioa da.

Migel Arretxek, era berean, nerabeen ikuslegoa ere berreskuratu nahi dutela argitu zuen. Izan ere, «txikitik txotxongiloak ikustera joaten bagara ere, ondoren urteak igarotzen dira mundu hau ahaztuta, heldutasunera iritsi eta ohitura berreskuratzen dugun arte». Hau dela eta arestian aipatutako koproduzioari esker *Perseo* lana ikusi ahal izango da Tolosan. Theatre de la Pire Especeera da eta objektu desberdinekin egiten dute lana.

## » TO.PIC-EN INAUGURAZIO EGITARUAU

### Hilak 26, osteguna

■ 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Ate irekien jardunaldia.

■ 11:00. Donostiako Txotxongilo Taldearen *Altxor bat patrikan* lanaren antzezpina alde aurretik hitzartutako Tolosako ikastetxeetako 1. eta 2. mailako ikasleentzat.

■ 18:00. Donostiako Txotxongilo Taldearen *Altxor bat patrikan* lanaren antzeppen irekia.

■ 16:00-20:00. Euskal Herria Plazako arkupean txotxongiloen artisauen feria.

### Hilak 27, ostirala

■ 10:00-14:00. Ate irekien jardunaldia.

■ 11:00-13:00. 3. solairuan txotxongilo tailerrak.

■ 11:00-13:00 eta 17:00-19:00.

Euskal Herria plazan makillaje tailerra.

■ 11:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Euskal Herria Plazako arkupean txotxongiloen artisauen feria.

■ 11:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Euskal Herria Plazako karpentan txotxongiloen maratoia.

■ 18:30. Udaletxeko plazan Tolosako haurren kontzentrazioa izango da; haurrak euren gaitzerdiekin edo txotxongiloekin joango dira eta Erraldoiekin batera Euskal Herria plazara joango dira kalejiraran.

■ 19:00. To.Pic-en inaugurazio ofiziala. Zinta mozketak, ongietorria eta hitzaldi ofizialak. Bartzelonako Joan Baizak konpainiaren Zoe

ikuskizuna eta Txotxongiloa Malin erakusketaren inaugurazioa. Jarrera Euskal Herria plazan Titiriferos de Binefarko berbera ere izango da.

### Hilak 28, larunbata

■ 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Ate irekien jardunaldia.

■ 11:00-13:00. 3. solairuan txotxongilo tailerrak.

■ 17:00-19:00. Euskal Herria plazan makillaje tailerra.

■ 11:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Euskal Herria Plazako arkupean txotxongiloen artisauen feria izango da.

■ 17:00-20:00. Euskal Herria Plazako karpentan txotxongiloen maratoia.

## Erakusketak

Urteroko moduan Aranburu Jaurregian jarriko duten txotxongilo erakusketak nabarmendu behar da. Bertan, Quebec-eko sorkuntzak izango dira nagusi. Maliko txotxongiloak ikusteko aukera ere izango da, hala ere, To.Picen.

Titirijai, Tolosan bertan eskaintzen dituen ikuskizunekin batera, Gipuzkoako osan barrena ere zabalitzen da, eta Donostian, Eibarren, Elgoibarren, Irunen, Ordizian eta Pasaian ere izango dira emanaldiak. Baita Ibarren ere, hilaren 28an, 11:30ean, Kanadako Theatre de Deux Mains konpainiak *Juanito eta deabru koitadia (Juanito y el pobre diablo)* lana eskainiko baitu Kultur Etxean.

90 URTE BERRITZEN.  
90 EGUN PREZIO HISTORIKOekin.

APROBETXATU EZAZU UNE HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Arriku orotarako aseguru zure Citroen berrian, errekareru eta interesik gabeko eta langabezi estaldura opari

GOZATU BAITA ERE C4, C4 PICASSO ETA C5 MILLENNIUM EREDUEN SERIE BEREZIAN. MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.

CITROËN C3 7.300€tik

CITROËN C4 HDi 11.600€tik

CITROËN XSARA PICASSO HDi 12.800€tik

www.citroen.es

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA



Behobia-Donostia lasterketa izango da bihar, inoiz izan duen parte-hartze handienarekin 18.444 korrikalarik eman baitute izena; eskualdeko ehunka lagun izango dira tartean.

## Lasterkarien festa handia

### ERREDAKZIOA

Iritsi da eguna. Bihar izango da Euskal Herrian jokatzeko den herri lasterketarik garrantzitsuenaren. Izan ere, milaka lagunek hartu ohi dute parte bertan, eta aurten, 45. aldian duela, inoiz baino korrikalari gehiago irtegaro dira lasterka, 18.444 lagunek eman baitute izena.

Pasa den urtean, 16.254 korrikalarik eman zuten izena lasterketan parte hartzeko, eta duela bi urte 14.536 lagunek. Gipuzkoarrak izan ohi dira parte-hartzaileen gehien-goa. Aurten %40 dira lurralde horretakoak, 7.381, hain zuzen. Baina Euskal Herriko kirolariek gain, gure mugerekin kanpokoak ere etorritzen dira parte hartzera. Horien artean, nabarmenezkoa da kataluniarren parte-hartzea, eta aurten bereziki azpimarra daiteke, izan ere, ia 584 lagunek eman bazuten izena aurten, 1.522 izan dira, gorakada handia, beraz.

Gorakada, baita ere, emakumezkoen artean. Korrikalarien %14 ziren ia emakumeak, eta %15 izango dira aurten. Ezinduz fisikoan, berriz, 25. aldiz parte hartuko dute aurten, 33 kirolari irtegaro diragupil aulkian, 36 itsuk parte hartuko dute, eta ezintasun

nen bat duten beste hamasei korrikalarik ere eman dute izena.

### 20 kilometroko ibilbidea

10:25ean abiatuko dira bihar, lehen parte-hartzaileak. Ez dute ez lan makala izango, 19.920 metro egin beharko baitituzte korrika helmugara iritsi arte. Kontuan izateko da, gainera, biharko iragarri duten eguraldia ez dela horretarako aproposena izango, euria egingo duela esan baitute adituek.

Dena dela, marka ezartzen ere saiatuko dira urtero legez. Gizonetakoetan, Alberto Juzdado espainiarrak 1999an egindakoa da markarik onena (59.23), eta emakumezkoetan, Rocio Rios espainiarraren 1998ko marka (1.08.54). Gizonetakoetan Chema Martinez espainiarra izan da azken lau urteotan proba irabazi duena. Emakumezkoetan, berriz, Ana Casares, Maria Jesus Pueyo eta Ana Royo dira proba irabazteko faboritoak.

### Eskualdeko ehunka lagun

Tolosaldeko eta Leitzaldeko parte-hartzaile ugari izaten ditu Behobia-Donostia lasterketak. Iaz, esaterako, 411 korrikalarik amaitu zuten proba, eta askok denbora ona eginez, gainera.

## «Lehen kiroldegi zaharrea eta Berazubín entrenatzen genuen»

KEPA LESAKA » Korrikalaria

**Tolosa** » 18 urterekin irten zen lehen aldiz Behobia-Donostia lasterketan; aurten 20. aldiz hartuko du parte.

### JOXEMI SAIZAR

20. aldiz egingo du Behobia-Donostia Kepa Lesaka korrikalari tolosarrak. Azken urte hauetan proba horretan eta beste hainbatetan esperientzia handia lortu du eta horren berri eman dio HITZARI, urteko lasterketa garrantzitsuenaren zain dagoela.

### Noiz eta nola hasi zinen korrika?

18 urterekin. Mendian ibiltzen nintzen eta inguruan jendea korri egiten hasi zela ikusi eta probatzen hasi nintzen. Lehen lasterketa Donostiako Antiguoa auzoan izan zen, Platero taberna abuztuaren 14ean antolatzen zuena.

### Eta urte horretan bertan Behobia-Donostia lasterketan atera al zinen?

Bai eta aurten hogeigarrena izango da, baina ez dira jarraian izan, lau aldiz ezin izan dudalako atera, bitan kanpoan nintzelako lanean, beste batean istripu batengatik eta beste batean maratoia prestatzen ari nintzelako. Edizio asko egin dituzten gehiago ere badira: Joaquín Goikoetxea, Gabriel Oiarzabal, Zel Goenaga...

### Per du lasterketa honek besteek ez dutena?

Ikusle aldetik jende pila bat biltzen



HITZA

dela errepide ertzetan, gero eta gehiago gainera.

### Zein zen hasierako garai haietako giroa korrikalarien artean?

Kiroldegi zaharrea eta Berazubín ibiltzen ginen entrenatzen eta egun baino giro hobea zegoen. Berazubín jende pila bat ibiltzen zen. Edozein unetan aurkitzen zenuen norbait. Orain jendea kanpora ateratzen da gehiago, bidegorria edo. **Eta nola entrenatzen zineten?** Amaroako Jose Ramon Intxausti eta Urkizuko Juanjo Ezeizari begiratu. Haien egindakoa egiten genuen, gure mailara egokituz. Autodidakta izan naiz.

### Zein beste probatan atera izan zara askotan?

San Esteban auzokoan, Donostiako eta Gasteizko maratoietan, Azkoiti-Azpeitin, Lasarten... Lehen ez zeuden hainbeste lasterketa. Orain berriz, irailtik azarora arte astero daukazu nahi baduzu.

**Maratoia ere egin duzu, beraz.** Bai, behin, duela 8-9 urte, Donostian. Hiru ordu eta minutu bat egin nuen.

### Eta Behobia-Donostian, zein da duzun markarik onena?

1:18:30. Duela 8-9 urte egin nuen. Urte askotan dortsal berdea izan dut, 1:25 artekoa. Orain berriz, gorria daukat (1:25-1:33).

### Nola prestatzen duzu zure burua azken urteotan?

Abuztuaren bukaeran hasten naiz. Lehen hilabetea fondoa hartuz. Asteaz bost aldiz edo entrenatzen dut. Normalean hiruzpalau lasterketa egiten ditut Behobiaren aurretik. Aurten Orreaga-Zubiri (22 km, oso gogorra), San Esteban, Ordizia eta Lasarteakoak. Serieak ere egiten ditut, eguraldi oso txarra egiten duenean zintan egiten dut korri, luzaketak... Behobiaren ondoren ez dut lasterketa gehiagorik egiten, astean bitan edo jarraitzen dut korri egiten eta mendira joaten naiz gehiago. Lehen bai, abenduan eta martxoan ere ateratzen nintzen lasterketetan.

### Janaria eta osasuna aldetik zer-bait egiten duzu?

Bai, saiatzen naiz zaintzen, grasa gutxi jaten. Eta azken egunetan karbohidrato gehiago hartzen. Esfortzu probak ere egin izan ditut, azken duela hiruzpalau urte.


### Zer aholku emango zenioke karriera hau lehen aldiz egin behar duen bati?

Entrenatu beharra dagoela, astean lau aldiz gutxienez, bakoitzak bere neurrian, proba gogorra delako.

### Eta igandean, zer espero duzu?

Beste urteetan baino ahulago nabilt. 1:27 edo kalkulatzen dut egingo dudala.

## Harpidetza kanpainako ZOZKETAREN IRABAZLEA



mallorca • tunisia • tenerife • europako hiriburuak • balnearioak  
2 lagunentzat bidaia

Iban Moreno

Irabazlearekin harremanetan jarriko gara

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea

**berriaren**  
harpidedun eta irakurleek  
erdi prezioan **12€**

Bete ezazu **urriaren 18tik 31 bitartean** BERRIAN argitaratuko den **erreserba kupoia** eta utzi zure kioskoan **azaroaren 8a** baino lehen.

BI ASTEREN BURUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzailea: **FAGOR**  
AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



## Gaztelekuaren beharrak biltzen

**VILLABONA** ● Gaztelekuaren sortzeko prozesu parte-hartzailearen barnean, herriko nerabeek beste urrats bat eman dute. Gaztegunean bertan grabaketa lanak egiten aritu dira DBH1 eta 2 mailako ikasleak. Kazetari bihurtu eta aste honetan erreportaje bat grabatu dute. Bertan gaztelekuak behar dituen, igogailua, sukaldea, jolaserako gunea... bildu dute. e.m.



laz Amasako jaietan zaldi proba izan zuten, aurtien idiak izango dira. IMANOL GARCIA

# Txerri guztiei heltzen zaien San Martin, ate joka dugu

**Amasa** » Asteartean hasi eta igandera arte luzatuko dira jaiak. Hilaren 22an berriz, urteroko mendiatloia izango da.

### ENERITZ MAIZ

Aurtengo San Martinak ere gainean ditugu eta Amasan urteroko bezala jai oparoak antolatuta dituzte. Asteartean hasi eta igandera bitarte, bada aukera jai giroak. Ikusteko, entzuteko, dastatzeko, parte hartzeko... moduko jaiak prestatu di-

tuzte urtero legez. Nahiz eta sarritan eguraldiak asko lagundu ez, amasarrek jai giroari ez diote muzinik egiten.

Astearte iluntzean, Martina sorginari ongi etorria egingo diote eta sabela betetzen hasiko dira pintxo dastaketarekin. Eguna handia, hau da San Martin eguna asteazkenean ospatuko dute. Eguna Meza Nagusiarekin hasiko dute eta jarraian, herrikirol saio bikaina izango dute.

Osteguna, gosariarekin, goizean goiz hasiko dute eta bazkaria eta afaria ere izango dituzte, beraz, jan

eta edateko egun paregabea izango dute.

Haurrek ostiral arratsaldean, Pirritx eta Porrotx pailazoan *Piratak* emanaldia ikusteko aukera izango dute eta baita txokolate beroa hartzeko ere.

Larunbatean, bertsozaleentzako, bertso jaialdi ederra prestatuta dute. Igandean, idi proba eta herrikirolen ostean, Martina Sorginari hurrengo urtera arte agur esan beharrean izango dira. Hala ere, zortzi egun geroago, urteroko bezala, Amasan jende ugari bilduko da XVII. Mendiatloia dela eta.

## » AMASAKO SAN MARTIN JAIETAKO EGITARUA

### Azaroak 10, asteartea

■ **20:00.** Martina sorginari ongi etorria eta pintxo dastaketa Kultur Etxean.

### Azaroak 11, asteazkena

■ **10:30.** Meza Nagusia.  
■ **Ondoren.** Herrikirolak. Otaegi eta Otaño Aizkolariak eta Irigoien eta Izeta harrijosatzaileak, bertsolari eta trikitilariak alaituko dute saioa.  
■ **20:30.** Mondeju afaria, Uxo Tokin.

### Azaroak 12, osteguna

■ **06:00.** Gazteen gosaria Ongi Etorrin, trikitilari eta dultzaineroenkin.

■ **14:00.** Gazteen bazkaria Uxo Tokin.

■ **16:30.** Soka-dantza eta Aurrekua plazan. Ondoren, erromeria.  
■ **21:00.** Gazteen afaria, Iturri Goxon.

### Azaroak 13, ostirala

■ **17:30.** Pirritx eta Porrotxen, *Piratak* emanaldia.  
■ **Ondoren.** Txokolate beroa.  
■ **20:00.** XVIII. Bakailao lehiaketa frontoian.  
■ **23:30.** Laiotz taldea.

### Azaroak 14, larunbata

■ **11:00.** Ume krosa. Ondoren, dultzaineroak.  
■ **14:00.** Txekor jatea.

■ **17:30.** Kantu poteoa.

■ **22:30.** Bertso Jaialdia: Amets Arzallus, Aitzol Barandiaran, Bernat Gaztelumendi eta Jexux Mari Irazu. Gai jartzalea: Amaia Agirre.  
■ **Ondoren.** Zesatek taldearen kontzertua eta Kantuki taldearen dantzaldia.

### Azaroak 15, igandea

■ **10:30.** Meza eta Idi probak.  
■ **18:00.** Herrikirolak: ezkonduak ezkongabeen kontra.  
■ **Ondoren.** Martina Sorginari agurra eta XX. Intxorrenen aldatzea.

### Azaroak 22, igandea

■ **11:00.** Amasako XVII. Mendiatloia.

## Laburrak

### Kantu txapelketako azken kanporaketa Arrasaten

**MUSIKA** ● Gaur 18:00etan hasita, Arrasateko Amaia aretoan, Gipuzkoako Kantu Txapelketaren azken kanporaketa izango da. Bertan, eskualdekoek parte hartuko dute eta finalera zein sailkatzen diren jakingo da. Alde batetik, bakar-lari bezala, Alegiako Ane Herrero eta Tolosako Leire Agirre izango dira. Bikoteko, Alegiako Ane Herrero eta Nora Salvador ariko dira eta taldeka, Alegia eta Altzoko Ane, Maddalen eta Olatzek abestuko dute. Finala, azaroaren 15ean Donostian izango da.

### Xexili festako bazkarirako txartelak salgai

**VILLABONA** ● Loatzo Musika Eskolak, azaroaren 22rako Xexili festa eguna antolatuta du Villabonan. Bazkarirako txartelak, azaroaren 9tik 16ra egongo dira salgai: Villabonan, Adunan, Iruran eta Altzon udal txetan, Zizurkilan Aurrera Plazako Udal Bulegoan eta Atxulondo Tabernan, Ibarren udal txetan eta Kultur Etxean, Anoetan udal txetan eta kiroldegian eta Alegian Kultur Etxean. Txartelen prezioak hauek dira: helduak 16 euro eta haurrek 8 euro.

### Gurea zineman 'Cher Ami' eta 'Zorion Perfektua'

**ZINEMA** ● Gaur, larunbata, 17:00etan *Cher Ami* euskaraz ikusteko aukera izango da. 19:30ean eta 22:30ean berriz, *Zorion Perfektua* egongo da. Igandean, 17:00etan, *Cher Ami* eskainiko dute eta kasu honetan ere euskalari bezala, Alegiako Ane Herrero eta Tolosako Leire Agirre izango dira. Bikoteko, Alegiako Ane Herrero eta Nora Salvador ariko dira eta taldeka, Alegia eta Altzoko Ane, Maddalen eta Olatzek abestuko dute. Finala, azaroaren 15ean Donostian izango da.

### Alegiako ginkana eguraldiaren arabera

**ALEGIA** ● Langaurre txirindulari elkarteak antolatuta, bihar Alegiako Larraitz auzoan haurrei zuzendutako ginkana izango da 11:00etan hasita. Eguraldi txarra bada, eta hala dago iragarrita, beste egun baterako utziko dute.

### Gabonetako programazioa antolatzeko bilera

**ANOETA** ● Gabonetako programazioa antolatzeko bilera deitu dute azaroaren 12rako. 17:30ean udal txetan izango da eta herritar guztiei dei egiten zaie parte hartzera.

**@ Eztabaidak.** Gure webgurek hainbat aukera ematen ditu eta horietako bat eztaibadan alorra da. Bertan, gai ezberdinak aurkitzen dira: krisia, abortoa, zenbait udal txetxek hartutako erabakiak, Bertsolari Txapelketa Nagusia... Horretarako, [tolosaldeko-hitza.info](http://tolosaldeko-hitza.info) orrian sartu eta amaieran aurkituko duzu. Sartu eta gai bakoitzaren inguruko eztabaidan parte hartzeko aukera izango duzu. Zure iritzia eman edo ekarpen egitera gonbidatzen zaitugu.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**ETXE ADMINISTRATIBAK ETA GESTIO INMOBILIARIOA**  
943-45 17 13 / 677-46 09 16

**INTERESGARRIAK**

- **ALOKATZETZA ETXETAK** Tolosagan  
Amaroizen, Iruran eta Korro kalean
- **ALOKATZETZA ETXETAK**  
Anoetan eta Alegian
- **ALOKATZETZA GARAJETAK**  
San Franziskoen, Araba quibodan, Iurretan eta Batsiler Zaldibian.  
Errosteko aukerarekin
- **ETXEBIZTZA SALGAI**  
Larramendin, Igogailuarekin, erakuntza berri eta San Franziskoen. Aukera onak
- **ETXEBIZTZA SALGAI IRURAN**  
Erreformatzeko, 40m<sup>2</sup>. Beste bat antzeko moduan.  
Eskaintza ona
- **GARAJE ETXETAK ETA ERREKATZ SALGAI**  
Amaroizen Tolosagan, Ibarren eta Iruran
- **LOKALA SALGAI**  
Gorriti plazan, Tolosagan

**GIPUZKOAKO BUSKAL KANTU TXAPELKETA**

AKZENA FINALA AURRERAKO SAIOA

AKZENA 7 - LEIATZOKA 15:00 ETAN  
VIII. ETAPAKO LEIATZOKA 17:00 ETAN

Azaroak 15, igandea, 18:00etan:  
FINALA - DONOSTIARAKO ANTZOKI ZAHARREAN

antolatzailea: **hitza berria**

# Ierabizkar Behekoa errota berritua ezagutzeko aukera izango da bihar

**Amezketak** » Kultur Astearen baitan egingo dute bihar inaugurazioa; gaurkorako ere ekitaldiak izango dira Ugarten.

**IMANOL GARCIA**

Amezketako Kultur Astearen ekitaldi interesgarriak izango dira asteburuan eta astelehenean. Bihar eta etzi, hain zuzen, errota izango dira hizpide. Ergoenea auzoan dagoen Ierabizkar Behekoa errota berritua eta gero bihar inauguratuko dute. 11:00etan izango da hori eta ordu horretan, eta baita 12:00etan eta 13:00etan, errota gain Zazpiburri zentrala eta energia berriztatzaileen erakusketak ikusteko aukera izango da, zirkuitu gidatu bat eginez.

Bisitak egiteaz gain, bihar ere hirina nola egiten zuten ikusteko aukera izango da. Gainera, haurrentzat ogia eta taloa egiteko tailerrak antolatu dituzte. Talok jateko aukera ere izango da, guztia trikitilariak alaituta.

Etzi ere errota izango dute protagonismoa. Izan ere, *Pernando eta errota* hitzaldia emango du Joxe Mari Oterminek, 20:30ean gela balioanitzean. Horrez gain, errota ondoan dagoen etxearen inguruan, Garikoitz Bernarasek egin duen proiektua ere aur-



Goian, Ierabizkar Behekoa errota berritua. Behean, berritua aurretik. IG./HITZA

keztuko dute. Etxe horretan *Pernando Amezketarrari* buruzko interpretazio zentroa egiteko asmoa dago.

## Errota eraberritzea

Amezketan, garai batean, zortzi errota ezagutu zituzten. Orain hiru baino ez dira zutik geratzen: Ugarteko Errota, Olakoa eta Ierabizkar Behekoa. Azkeneko honen egoera larria zela ikusirik, eraberritzea erabaki zuen Udalak. «Pentsatu genuen merezi zuela errota mantentzea, historia eta kultura mantentzea garrantzitsua delako», azaldu du Jexux Iñurrita alkateak.

Eraberritzearen aurrekontua 87.000 eurokoa izan da eta Foru Aldunditik %40ko diru laguntza jaso zuen Udalak. Konstan Sagastume herritarra aritu da berritze lanak egiten. Paraje horretan beste errota bat ere bazegoen, Ierabizkar Goikoa. Biak XVII. mendeak direla diote adituek.

## Abesbatza kontzertua eta sardina eta saiheki jatea

Kultur Astearen baitan gaurko ere izango dira ekitaldiak. Hala, 19:00etan Ugarteko elizan Villabonako Eresargi Abesbatzaren emanaldia izango da. Ondoren, eta Ugarten bertan ere, 20:30ak inguruan sardina eta saiheki jatea egingo da.

# Herri kiroletan ariko dira gaur gaztetxoak Tolosako bi gunetan

**ERREDAKZIOA**

Tolosako Komertzio Foroaren bi dez eta Eusko Jaurlaritzaren Merkagune programaren laguntzarekin, «larunbatetan komertzioa sustatzeko helburuz» hainbat ekimen ari dira burutzen. Gaur ere prestatu dituzte gaztetxoek bereziki zuzenduriko jokuak. Hain zuzen ere, herri kiroletan ariko dira, herriko bi gunetan, 17:00etan hasitabetan.

Triangulon (Berdura plazan euria egingo balu) harri-jasotzen, zaku lasterketan, ingudea altxatzen, lokotx biltzen, sokatiran eta lasterka ariko dira gaztetxoak, besteak beste. Bestalde, Sortzez Garbiaren plazan (Tolosako Ekinbide Etxearen ondoan, eta euria egingo balu Zerkausian), fardo altxaketa, laia lasterketa, sokamuturra, gurdijokoa eta txingetan ariko dira, besteak beste.

## Laburrak

### Pablo Gorosabel itxiko dute bihar egun osoan

**TOLOSA** » Kolektorearen obrak direla eta, Pablo Gorosabel kalea itxi egingo dute bihar, 08:00etatik 20:00etara. Udaletik sor daitezkeen eragozpenengatik barkamena adierazi nahi diete herritarrei.

### Tren zerbitzu berezia Behobia-Donostiarengatik

**GARRAIOA** » Renfek tren zerbitzu berezia emango du bihar Behobia-Donostia lasterketa dela-eta. Zumarraga eta Tolosatik 7.000 plaza gehiago jarriko dituzte, hain zuzen.

## Kirol jarduerak

### Bihar, igandea, Tolosan Futbola

■ Berazubiko zelaian, 16:30ean, lurraldekako ohorezko maila: Tolosa CF-Aurrera Ondarroa.

### Dardoak

■ Beotibar pilotalekuan, Tolosa 2015 Dardoen Txapelketa, 10:00etatik 14:00etara.

### Aizkora

■ Zezen plazan, Mikel Mindegia eta Donato Larretxea, 12:00etan.

### Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, juniorrak: Tolosa-Aloña Mendi.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, seniorrak: Tolosa-Urrietako.

# Emakumea Pilotari Txapelketaren partidak Udazken Kulturalaren baitan

**ERREDAKZIOA**

Ikaztegiatiko Udazken Kulturalaren baitan beste ekitaldi bat izango da gaur. Ezker Hormako IV. Emakumea Pilotari Txapelketako sei-garren jardunaldia jokatu da herriko frontoian, 16:00etan hasita.

Guztira hiru partidak izango dira jokoan.

Lehenengo partidaren bigarren mailako norgehiagoka izango da, Lizeaga-Lucas eta Garmendia-Aizpurua bikoteen artean. Bigarren partidaren, lehen mailako parti-

da izango da Fernandez-Manzisdor eta Pierola-Mendizabal bikoteen artean. Hirugarren partidaren bigarren mailako txapelketako partidak izango da, Bañales-Urbieta eta Pagola-A. Urkizu bikoteen artean.

Ikaztegiaren ariko diren pilotarien artean dago Ainhoa Garmendia alegiarra. Maider Mendizabal anoetarrek, Maitane Aburuza zi-

zurkildarrak eta Itsaso Urkizu berastegiarrak Aian jokatu dituzte beraien partidak.

## Herri Krosa

Udazken Kulturalaren hurrengo ekitaldia hilaren 15ean izango da, hau da, Herrigintza elkartearen antolatzen duen Ikaztegiatiko Herri Krosa.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako enpresa batek zerbitzaria behar du. Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko neska bat behar du. Eskarmentuduna. Deitu 661 463 193 telefono zenbakira.

### SALGAI

■ **Su egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotarako mozta. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615 755 762.

### GALDUTAKOAK

■ **Panpina.** Joan den urriaren 31n, 13:00ak aldera, Tolosako Aroste-gieta kalean, Iratiren panpina galdu genuen. Txintxirrin hotsa ateratzen duen elefante itxurako txotxongilo koloreduna da. Aurkitu duenak, deitu dezala mesedez 657 704 878 telefono zenbakira.

■ **Argazki kamera.** Tolosan, Eme-terio Arrese inguruetan, argazki kamera digital bat aurkitu da. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 65 56 95.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# IX. Batzar Nazionala Tolosan egingo du Etxeratek

**Gizartea** » Besteren artean, «errepresaliatu politiko» guztien senideak gonbidatu dituzte Leidor aretora, hilaren 15erako.

## ASIER IMAZ

Etxerat elkarteak datorren azaroaren 15an bere IX. Batzar Nazionala burutuko du Tolosako Leidor aretoan. «Euskal errepresaliatu politiko guztien senideak» gonbidatu dituzte, «espreski» eurentzat prestatutako ekimenera.

Horrekin batera, IX. Batzar Nazionalan, eragile sozial, sindikal eta politikoko ere euren tartea izango dutela jakinarazi dute Etxeretatik.

## «Katxeok bisita aurretik»

Hilaren 15ean Tolosan egingo duten Batzar Nazionalaren aurkezpenean, Etxerat elkarteak gogor salatu du «euskal preso politikoen senideen aurka ematen ari diren neurriak». Azken bi asteetan, es-

painiar Estatuko lau espetxetan, bisita aurretik senide eta lagunak «katxeatuak» izan direla jakinarazi dute.

Badajozen berriz, «espainiar poliziak eta espetxe zaindarien bisita egitera zihoazen senideak katxeatu egin nahi izan zituzten. Eurretako asko ukatu eta bisitarik gabe geratu ziren».

Foncalenten, «Madriletik etorritako agindu bat zutela argudiatuz, Endika Abad presoaren gurasoak katxeatu eta biluztu nahi izan zituzten» Etxereteke kideen esanetan. «Beste horrenbeste gertatu zen Albaceten Txus Goikoetxea preso arrasatearraren bikotekidearekin. Alcala Mecon, Josu Arruabarrena oreretarraren eta Sergio Boado iruindarraren senitartekoak katxeatuak izan ziren bisitara sartu aurretik».

## «Umilatu egin nahi gaituzte»

Gertakari hauen aurrean Etxeraten irakurketa argia da: «euskal preso politikoen aurkako espetxe politika kriminala gogortu nahi

dute. Antza, ez omen dute aski sakabanaketa, bizi osorako zigorra, heriotza zigorra, isolamendua, barkatzea, jipoiak, mehatxu, komunikazioen bortxaketa etengabea etabarrekin... Presoak pertsona eta subjektu politiko gisa suntsitu nahi dituzte. Euren inguru sozial eta afektibotik aldentuta. Horrekin batera, euren senide eta lagunak kolpatu eta umiliatu nahi dituzte».

## Irtenbidea: «konpromisoa»

Uztezko eraso hauen irakurketa argi edukitzeaz gain, euskal preso eta iheslarien senideek irtenbidea nondik etorriko den ere argi dute: «Honen aurrean, ezinbestekoa izango da euskal jendartea osatzen dugun eragile sozial, sindikal, politiko eta norbanako konpromisoa. Eskubideen bortxaketa etengabea eta umilazio saiakerak gaindituko dituen».

Azkenik, hilaren 15ean Leidor aretora agertzeko deialdi zabala luzatu diete herritar eta eragileei. Eta nola ez, «euskal errepresaliatu politiko guztien senideei».

# Gazte Asanbladaren Kultur Astea martxan

**Ibarra** » Gaztetxearen XVI. urteurrena ospatzeko Kultur Astea antolatuko dute Ibarrao Kultur Astea Asanbladako kideek.

## A. IMAZ

Ibarrao Kultur Astea Asanblada Gaztetxearen XVI. urteurrena ospatzen ari da. Helburu horrekin Kultur Astea antolatuko dute IGAKo kideek.

## » EGITARAUA

### Azaroak 7, gaur,

- 16:30ean. Futbolin Txapelketa.
- 17:30ean. Mus Txapelketa. Izen-ematea momentuan.

### Azaroak 8, bihar

- 18:00etan. Talo Jana.

### Azaroak 10, asteartea

- 19:00etan. Sexologia hitzaldia.

Ekitaldiak atzo hasi baldin baziren ere, gaurtik hilaren 14ra hainbat gai jorratuko dituzte.

### Futbolin eta Mus Txapelketa

Kultur Astearen lehen ekitaldia afari baten inguruan burutu zen atzo gauean, Unai Gaztelumendi eta *Mantxi* bertsoariaren laguntzarekin.

Gaur berriz Futbolin eta Mus Txapelketak jokatuko dituzte. Izena momentuan eman beharko da.

### Azaroak 13, ostirala

- 19:30ean. Liburu aurkezpena: *El Filtro*. Jon Mintegiaga ibartarraren eskutik.
- 22:00etan. Zinema: *Las trece rosas*.

### Azaroak 14, larunbata

- Karibear gaua: Mojitoak, musika, karibear giroa,...

# Jaunarena final berri batean

**Leitza** » Leitza gaur jokatu du Nafarroako Kluben Arteko Txapelketaren finala, Labriten 20:00etan.

## A. IMAZ

Aurrera Pilota Eskolakoen partidak jokatu dira gaur eta bihar hainbat herritan. Horien artean Jaunarenak jokatu duen finala azpimarratu behar da. Hala eta guztiz ere, ezin dira ahaztu Nafar Jokoa, Leitza izango baitira.

### Jon Jaunarena Labriten gaur

Nafarroako Kluben Arteko Txapelketaren finalak ospatuko dira gaur Iruñeko Labrit pilotalekuan. Bertan egongo da Jon Jaunarena.

22 urte azpikoen mailan leitza Zarantonen aurka jokatu du finala, 20:00etan.

Txapelketa beraren baitan, kasu honetan paleta goman, Iera Agirre-Saioa Aristorena bikoteak 11:00etan jokatu dute gaur Iruñean, Oberenako bikote baten aurka.

### Nafar Jokoa eta Lizarra

Nafar Jokoen baitan 6 partidak jokatu dituzte gaur Leitza Amazabal pilotalekuan. Jaialdia 10:00etan hasiko da eta lau maila desberdinetako partidak izango dira: benjamin mailakoak, alebnetakoak, infantiletakoak eta kadete mailakoak.

Lizarrako Txapelketari dagokionez, infantiletan bihar bi leitzairen partidak jokatu dira bertan.



Jon Jaunarena pilotari leitzaarra. A.I.

Mikel Eraso 12:00etan irtegarri kantxara eta Ander Gartziaarena 12:30ean, hau da, Erasok bere partida amaitzen duenean Gartziaarena txanda izango da.

# Leitzako kiroldegian egokitze lanak

## ERREDAKZIOA

Egokitze lanak direla eta, Leitzako kiroldegiko gimnasioa, squash kantzua eta pilotaleku txikia itxita izango dira astelehenera aurrera.

Kiroldegiko arduradunek azal-

du dutenez, egin beharreko lanek 15 egun inguru iraungo dute. Hiru eremu horiek itxita egongo diren arren, kiroldegiko beste gune guztiak zabalik jarraituko dute, orain arte bezala. Ikastaro etabarretan beraz, ez da aldaketarik egonen.

# 'Ate Joka' antzezlanaren Leitzan hilaren 21ean

## ERREDAKZIOA

Leitzako Kultur Taldeak, ALKEK, antzerki emanaldia antolatuko du hilaren 21ean, larunbatean.

Herriko zinean 20:00etatik aurrera, Txalo produkzioen eskutik, Sara Cozar, Joseba Usabiaga eta

Iker Galarza antzezleek prestatua duten lan bikaina ikusteko aukera egonen da.

Antzezlanaren izena *Ate Joka* da eta bertan bi lagun arteko elkarbizitzaren gorabeherak kontatzen dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak





12°  
10°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	14°
HOTZENA	8°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Teléfonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Balañarain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolosako dendariak antolatutako Dinamizazio Kanpaina: haurren herri kirolak eta herri jolasak, 17:00etan, Triangulon eta Sortzez Garbieren plazan.

### Kultur Asteak

■ **Amezketeta.** Eresargi abesbatza Ugarteko elizan 19:00etan, eta gero, sardina eta saiheski-jatea.  
■ **Berastegi.** Sagardo egitea frontoian 17:00etan; aparkaleku azpiko lokalean arroz-esne txapelketa 17:00etan; gartzain erretzea

18:00etan; ondoren afari-merienda; 21:30ean antzerkia.

■ **Ikaztegieta.** Emakumea Pilotari txapelketako partidak, 16:00etan.  
■ **Orexa.** Herri afaria 21:00etan ondoren erromeria Gari eta Iñakiren taldearekin eta DJ Bullekin.

### Musika

■ **Tolosa.** Gargantas Desgarradas eta Klabo Oxidado taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidorren: 19:30ean Zo-

rion perfektua, eta 22:30ean, Frozen river filma.

■ **Villabona.** Gurean: 17:00etan *Cher ami* (euskaraz) eta 19:30ean eta 22:30ean, *Zorion perfektua*.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernika Arbola, 3. 943 65 10 40.

■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Manex Tejeria Larrarte (Zizurkil).** Gaur 4 urte.

Zorionak etxeko guztien partetik.



### Zorionak!

**Uxue Aizpurua de Paz (Asteasu).**

Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



## Musikariak ere 'Egunkaria'-ren alde

**'EGUNKARIA AUZIA'** Azken asteetan kirolariak, politikariak, zinemagileak, bertsolariak, idazleak... azaldu dira *Egunkaria Auzia* dela eta, auzipetuei euren babesak adieraziz. Musikariak atera ziren atzokoan Donostia-

ko Bulebarrera, *Egunkaria libre!* Ilolepean, auzipetuekin batera. Eskualdekoak ere baziren, Bide Ertzean taldeko Imanol Ubeda, esaterako. Auzipetuen artean, berriaz, han zen Martxelo Otamendi tolosarra. L. MADINABETIA

**SOLAGÜEN 2004.** urteko ERRESERBAko ardoa

6 botilako kutxa **60€**

12 botilako kutxa **72€**

**SOLAGÜEN 2005.** urteko ardo ONDUA

**REMELLURI 2005.** urteko ERRESERBAko ardoa

3 botilako kutxa **40€**

6 botilako kutxa **80€**

**BRUT NATURE MAINEGRA**

MENDABIARAKO CAVA  
Mahaia: 95% viña, 5% parellada, 5% chardonnay.  
LIGERTAN ONDULU:  
Hogei hildibete baino gehiago.  
Auzoherri GARAIKUE:  
Bolumenaren %2, gutxi gorabehera.

6 botilako kutxa **39€**

Erosi **berriaren** plazan  
EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroren 30a arte

943-30 43 45  
www.berria.info  
harpidetza@berria.info

Bidalaketa gastuak doan

Alfar La Maja

6 botilako kutxa 19,5€ **36€**

**GIZA ESKUBIDEAK**

ASPERTZEN ZARA ESKUBIDAREN JUSTIFIKAZIOAK ENTZUTEN?

ANIZTASUNA ETA BIZIKIDETZA ELKARREKIN BIZI DAITEZKE?

DONI EZBERDINEK HIZKUNTZA ABERASTEN DUTE?

LEHEN ONAK IZAN ZIREN, ETA ONDORREN HERRIALDEKO MUGAK?

ZURE BOTOA DA: ESKUBIDE GAZTIAK PERTSONA GAZTIENTZAT?

Zure iritzia **BAI** izan bada hau interesatuko zaizu

www.sosarrazakeria.org